*Bigarrena*.– Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko otsailak 22.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
FERNANDO BUESA BLANCO.

Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
PAULINO LUESMA CORREAS.

*Segunda*.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 22 de febrero de 1994.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
FERNANDO BUESA BLANCO.

El Consejero de Trabajo y Seguridad Social,
PAULINO LUESMA CORREAS.

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 917

93/1994 DEKRETUA, otsailaren 15ekoa, Urkiolako Parke Naturaleko Patronatuaren osaketa aldatzen duena.

275/1989 Dekretuaren 9. atalak Urkiolako Parke Naturaleko Patronatua eratzen du, kudeaketarako organo laguntzaile eta aholku-emaile gisa.

Urkiola aldea Parke Naturaltzat jo zenetik igaro den denbora dela medio, alde horretako gizarte eta ekonomi interes batzuk ordezkatzen dituzten beste talde batzuk ere Patronatuan sartzea komenigarria dela ikusi ahal izan da, horri esker, azken finean, iratxiki zaizkion eginkizunak hobeto bete ahal izango baititu Patronatuak.

Beraz, bidezko da Urkiolako Parke Naturaleko Patronatuaren osaketa doitzea, eta 275/1989 Dekretuaren 9. ataleko 4. lerroaldia beste era batera idaztea.

Ondorioz, Urkiolako Parke Naturaleko Patronatuak 275/1989 Dekretuaren 9.5.a) atalean aipaturiko txostena emanda eta Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1994ko otsailaren 15ean egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Atal bakarra*.– Urkiola aldea Parke Naturaltzat jotzen duen abenduaren 29ko 275/1989 Dekretuaren 9.4. atala aldatzen da eta aurrerantzean ondoko era honetara geratuko da idatzirik:

«9.4. atala.– Patronatua osatuko dutenak, lehendakariaz gain, honako hauek izango dira:

a) Nekazaritza eta Arrantza Saileko ordezkari bat, sailburuak izendaturik;

b) Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko ordezkari bat;

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

### 917

DECRETO 93/1994, de 15 de febrero, por el que se modifica la composición del Patronato del Parque Natural de Urkiola.

El artículo 9 del Decreto 275/1989 crea el Patronato del Parque Natural de Urkiola como órgano colaborador y asesor de su gestión.

El tiempo transcurrido desde la declaración de Urkiola como Parque Natural, ha permitido constatar la oportunidad de dar entrada en dicho órgano a nuevos colectivos representativos de determinados intereses sociales y económicos presentes en la zona, lo que redundará, en definitiva, en un mejor cumplimiento de las funciones que tiene ecomendadas.

Procede, por tanto, realizar un reajuste en la composición del Patronato del Parque Natural de Urkiola, dando una redacción nueva al párrafo 4 del artículo 9 del Decreto 275/1989.

En su virtud, habiendo emitido el Patronato del Parque Natural de Urkiola el informe a que se refiere el artículo 9.5.a) del Decreto 275/1989, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, y previa deliberación del Consejo de Gobierno, en su reunión de 15 de febrero de 1994,

DISPONGO:

*Artículo único*.– Se modifica el artículo 9.4 del Decreto 275/1989, de 29 de diciembre, de declaración del Parque Natural de Urkiola, que queda redactado de la siguiente manera:

«Artículo 9.4.– El Patronato estará compuesto, además de por su presidente, por los siguientes miembros:

a) Un representante del Departamento de Agricultura y Pesca, nombrado por el Consejero.

b) Un representante del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente.

c) Bizkaiko Foru Aldundiaren barruan Urkiolako Parke Naturalaren kudeaketaz arduratzen den organoaren ordezkari bat;

d) Arabako Foru Aldundiaren barruan Urkiolako Parke Naturalaren kudeaketaz arduratzen den organoaren ordezkari bat;

e) Urkiolako Parke Naturalean integraturiko udalerrietako ordezkari bana;

f) Natur ingurunearen azterketa, defentsa eta babespenean benetakoturiko ibilbidea egina duten Euskal Herriko zientzi elkarteen ordezkari bat;

g) Urkiolako Parke Naturalaren lurralde eremuan iharduten duten elkarte ekologista eta artatzaileen ordezkari bat;

h) Urkiolako Parke Naturalean entzute handikoak diren kultur elkarte edo taldeen ordezkari bat;

i) Euskal Herriko Mendiko Federakundearen ordezkari bat;

j) Euskal Herriko Basogintza Konfederakundearen ordezkari bat;

k) Euskal Herriko nekazaritzako lanbide erakundeen ordezkari bat;

l) Euskal Herriko Mendiko Nekazaritzaren Federakundeko ordezkari bat;

ll) Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bat;

m) Aldeko finken jabeen elkarte edo taldeetako bi ordezkari;

n) Parkearen eraginaldean kokaturik dauden ehiza eta arrantza klub eta elkarteen ordezkari bat;

ñ) Urkiolako Parke Naturaleko Zuzendari-artatzailea.

o) Lehendakariak izendaturiko idazkaria, hizpidea bai baina hautespiderik izango ez duena.

Aurreko b), c), d), e), i) j), l), ll) letretan aipaturiko patronatukideak, ordezkari direneko organo edo erakundeek izendatuko dituzte.

Aurreko f), g), h), k), m), eta n) letretan aipaturiko patronatukideak, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza sailburuak izendatuko ditu, kasuan kasuko erakunde edo taldeek proposamena egin ondoren.

Patronatuko kideak, zuzendari-artatzailea salbu, lau urteko epealdi berriztagarrietarako izendatuko dira eta epe horren buruan utziko dute kargua, berriro izendatuak izan ezik, edota karguari uko egin edo izendapena eragiten duten baldintzetarik edozein galdu ezik.

c) Un representante del órgano responsable de la gestión del Parque Natural de Urkiola de la Diputación Foral de Bizkaia.

d) Un representante del órgano responsable de la gestión del Parque Natural de Urkiola de la Diputación Foral de Alava.

e) Un representante de cada uno de los municipios integrados en el Parque Natural de Urkiola.

f) Un representante de las Asociaciones científicas del País Vasco con trayectoria acreditada en el estudio, defensa y protección del medio natural.

g) Un representante de las Asociaciones ecologistas y conservacionistas que actúen en el ámbito del Parque Natural de Urkiola.

h) Un representante de las Asociaciones o colectivos culturales de reconocido prestigio en el ámbito del Parque Natural de Urkiola.

i) Un representante de la Federación de Montaña del País Vasco.

j) Un representante de la Confederación de Forestalistas del País Vasco.

k) Un representante de las Organizaciones Profesionales Agrarias del País Vasco.

l) Un representante de la Federación de Agricultura de Montaña del País Vasco.

ll) Un representante de la Universidad del País Vasco.

m) Dos representantes de las Asociaciones o colectivos de propietarios de los predios de la zona.

n) Un representante de los Clubes y Asociaciones de Caza y Pesca radicados en el área de influencia del Parque.

ñ) El Director Conservador del Parque Natural de Urkiola.

o) Un Secretario nombrado por el Presidente, que actuará con voz pero sin voto.»

Los miembros del Patronato relacionados en las letras b), c), d), e), i), j), l), ll) serán nombrados por los referidos órganos o entidades representadas.

Los miembros del Patronato relacionados en las letras f), g), h), k), m) y n) serán nombrados por el Consejero de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco a propuesta de las referidas entidades o colectivos.

Los miembros del Patronato, salvo el Director Conservador, serán nombrados por periodos renovables de cuatro años, y cesarán por el transcurso de dicho periodo, si no fueren renovados, por renuncia o por pérdida de cualquiera de las condiciones que hubieren motivado su nombramiento.

AZKEN XEDAPENA

Honako dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko otsailak 15.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

DISPOSICION FINAL

Este Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 15 de febrero de 1994.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ANDANZA GARRO.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

**918**

94/1994 DEKRETUA, otsailaren 15ekoa, fruta eta barazkietarako «Euskal Baserri» marka arautzen duena.

Euskal Herrian ekoitziriko fruta eta barazkiek euskal merkatuan duten entzute eta estimazio handia dela eta, gomendagarria da kontsumitzaileak produktu horiek ezbairik gabe identifikatzeko behar dituen tresnak ezartzea.

Identifikazio horrek balio behar du, gainera, merkatuan gerta daitekeen iruzurra eragozteko, hau da, bertokoak ez direnak bertoko produktu legez sal ez daitezen.

Ondorioz, ukituriko fruta eta barazkien ekoizleen elkarteei kontsulta egindakoan, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1994ko otsailaren 15ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*– Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoak diren «Euskal Baserri» marka eta bera irudikatzen duen bereizgarriaren erabilera arautzen da, zeinen helburua honako dekretu honen eraskin gisa agertzen den arautegian ezarritako ezaugarri eta beharkizunak biltzen dituzten fruta eta barazkiak bereiztea baita.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Ahalmena ematen zaio Nekazaritza eta Arrantza sailburuari dekretu hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak emateko.

*Bigarrena.*– Honako dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko otsailak 15.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

**918**

DECRETO 94/1994, de 15 de febrero, por el que se regula la marca «Euskal Baserri» para productos hortofrutícolas.

El prestigio y la alta valoración que en el mercado vasco tienen los productos hortofrutícolas producidos en el País Vasco, recomiendan establecer los mecanismos que permitan al consumidor la identificación inequívoca de dichos productos.

Dicha identificación deberá servir, además, para evitar el posible fraude en el mercado de productos que sin ser del País, son vendidos como tales.

Por ello, una vez consultadas las Asociaciones de Productores de productos hortofrutícolas implicados, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 15 de febrero de 1994,

DISPONGO:

*Artículo único.*– Se regula el uso de la marca «Euskal Baserri» y del distintivo que la representa, ambos propiedad del Gobierno Vasco, y cuyo fín es el de distinguir a aquellas frutas y hortalizas que reúnan las características y los requisitos establecidos en el reglamento que figura como anexo al presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Consejero de Agricultura y Pesca para dictar las disposiciones para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 15 de febrero de 1994.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.